

Ongizate emozionala eta psikologikoa errazteko eta haien erosotasuna, lotura afektiboa eta bizi-kalitatea sustatzeko, Arabako ESIak aukera ematen die ospitaleratutako pertsonei beren maskoten bisita jasotzeko. (**txakurrak soilik**).

Topaketa antolatzeko 2 modalitate daude:

1. Arabako Unibertsitate Ospitaleko bi eraikinen kanpoko gune batean (Txagorritxu eta Santiago egoitzetan), baina ospitale-perimetroaren barruan.
2. Ospitaleetako eraikinen barruan, 2 aukera daude:
 - 2.1. Jenderik gabeko hall-eremu komun batean.
 - 2.2. Ospitaleratutako pertsonaren gelan.

Maskotek jabeak bisitatu ahal izateko baldintzak (*):

- Laguntza-taldeak baloratuko du zure egoerak zure maskota bisitatzea ahalbidetzen duen.
- Hala badagokio, osasun-langileek gela partekatzen duen pertsonaren ahozko baimena eskatuko dute.
- Hasiera batean, maskota bakoitza pertsona bakar batekin joango da ospitale barruko elkarguneetara.
- Txakurraren laguntzaileak pasaporte ofiziala eta albaitariak emandako ziurtagiri ofiziala erakutsi beharko ditu.
- Higiene- eta osasun-gomendioak, animalien ongizateari eta bizikidetzari buruzkoak eta ospitaleko langileentzako jardunbide egokiak bete beharko dira (ikusi QR kodea).

(*) Arabako Albaitarien Elkargo Ofizia Ohoretsuak ezarriak, Osasun Publikoa eta Animalien Ongizatea bermatzen dutenak, eta Arabako ESIko Medikuntza Prebentiboko eta Osasun Publikoko Zerbitzuak onartuak (ikusi QR kodea).

Zentro bakoitzean berariazko topaguneak daude (ikusi QR kodea)

Bisita ordutegiak: 18:00etatik 20:00etara.

Iraupena: 30 minutu gutxi gorabehera.

Txakurraren laguntzaileak egin beharreko urratsak:

Osasun-talde arduradunaren baimena lortu ondoren, txakurraren laguntzaileak telefonoz deituko dio zeladoreen arduradunari, bisitaren eguna eta ordua adosteko (ikusi QR kodea).

1. Bisita egunean:
 - a. Aldez aurretik txakurra paseatzea, bisitara bere beharrak eginda joan dadin.
 - b. Ospitalera iristean, sarbide-puntutik telefonoz harremanetan jartzea (ikusi QR kodea)
 - c. Zeladoreen arduradunak harrera egin arte itxarotea eta albaitari-klinikan emandako albaitari-ziurtagiri ofiziala ematea.
 - d. Laguntzaileari poltsa bat eta identifikazio-zapi bat emango zaizkio (ikusi QR kodea). Jarri zapia txakurraren lepoan. Bisita amaituta, ez da beharrezkoa itzultzea.
 - e. Elkarguneraino lagun egingo zaio.
 - f. Bisitaren denbora igaro ondoren, eman dizuten telefono-zenbakiarekin harremanetan jarri eta irteerara lagundu arte itxaron.
 - g. Zeladoreak inkesta bat emango dizu, bisita baloratzeko eta hobetu beharreko arloak identifikatzeko.



Maskota bisitatu nahi duten pazienteentzako informazio-orria

INFORMACIÓN PARA PACIENTES QUE DESEAN RECIBIR LA VISITA DE SU MASCOTA (PERROS)



En Vitoria-Gasteiz, a 1 de julio de 2025

Con el objetivo de facilitar el bienestar emocional y psicológico y promover su confort, vínculo afectivo y calidad de vida, la OSI Araba ofrece la posibilidad de que las personas ingresadas reciban la visita de sus mascotas (**perros exclusivamente**).

Existen 2 modalidades para organizar el encuentro:

1. En un punto exterior a los dos edificios del Hospital Universitario Araba (sede Txagorritxu y Santiago) pero dentro del perímetro hospitalario.
2. Dentro de los edificios de los hospitales, con 2 posibilidades:
 - 2.1. En una zona común de halls no concurridos.
 - 2.2. En la habitación de la persona ingresada.

Los requisitos para que las mascotas puedan visitar a sus dueñas y dueños (*):

- El equipo asistencial valorará si su situación permite la visita de su mascota.
- En su caso, el personal sanitario solicitará la autorización verbal de la persona que comparte habitación.
- En principio, cada mascota accederá a los puntos de encuentro dentro del hospital acompañada de una única persona.
- La persona acompañante del perro habrá de aportar Pasaporte Oficial y Certificado Oficial expedido por su Veterinario.
- Habrán de cumplirse recomendaciones higiénico-sanitarias, de bienestar animal y convivencia, y unas buenas prácticas para el personal del hospital. (ver código QR)

(*) Establecidos por el Ilustre Colegio Oficial de Veterinarios de Álava, que garantizan la Salud Pública y el Bienestar Animal, y aprobados por el Servicio de Medicina Preventiva y Salud Pública de la OSI Araba. (ver código QR)

Existen puntos específicos de encuentro en cada centro (ver código QR)

Horario de las visitas: De 18:00 a 20:00 horas.

Duración: durante aproximadamente 30 minutos.

Pasos a seguir por el acompañante del perro:

Una vez obtenida la autorización del equipo sanitario responsable, la persona acompañante del perro contactará vía telefónica con la/el responsable de celadores/ras para concertar la fecha y hora de la visita (ver código QR)

1.-El día de la visita:

- a) Pasear previamente al can para que pueda acudir a la visita con sus necesidades hechas.
- b) Al llegar al hospital, contactar telefónicamente desde el punto de acceso (ver código QR)
- c) Esperar a que le reciba la persona encargada de celadoras/res y hacerle entrega del Certificado Oficial Veterinario que le habrán facilitado en su clínica veterinaria.
- d) A la persona acompañante se le hará entrega de una bolsa y un pañuelo identificativo (ver código QR), Coloque el pañuelo al cuello del can. Finalizada la visita no es necesario que lo devuelva.
- e) Se le acompañará hasta el punto de encuentro.
- f) Trascurrido el tiempo de la visita, contactar mediante el número de teléfono que le han facilitado y esperar a que le acompañen a la salida.
- g) El personal celador le facilitará una encuesta para valorar la visita e identificar áreas de mejora.



Hoja Información a Pacientes que desean visita Maskota



MASKOTAREN (TXAKURRAK) BISITA JASO NAHI DUTEN PAZIENTEENTZAKO INFORMAZIOA



Vitoria-Gasteizen, 2025eko uztailaren 1ean

